



# Libertad zuen izena

Durango 1936 elkarteak kaleratu duen aldizkarian Libertad Ibarra Palgaldaren (Durango, 1933) bizitzari buruz idatzi du haren iloba Katalin Garaitak. Gurasoek Libertad izena jarri zioten arren, erbestetik Atxondoko aitita-amamen etxera itzuli zenean aldatu egin zioten izena, eta Mari Tere jarri. Iñaki Garaita Libertaden semeak gerra sasoiaren familian jazotakoa ikertu du. Azaldu duenez, etxean ez zieten transmititu garai hartan familian gertatu zen guztia. "Isilarazitakoen ahotsa" transmititzea helburu duen elkarteak Agurrik Gabeak omenaldia antolatu du domekarako, Plateruenean, 18:00etan. • 2-3

LEHIORE LORRIAGA

## Paper fabrikako isurketak Ibaizabalen

**Durangaldea** | Iurretako paper fabrikak Ibaizabalen "legez kanpoko isurketak" egin dituela atera du argitara EH Bilduk. Orain 20 bat urte estalitako hondakinen gune batetik materialak iragazi direla dio, eta horiek gai kutsakorrek direla egiaztatu du laborategi batean. Neurriak eskatzeaz gain, gaur Arriola sailburuari azalpenak eskatuko dizkio, bere ustez Jaurilaritza jakinaren gainean zegoelako. • 5



## Herritarrak sentsibilizatzeko, Elorrioko dendetan plastiko beltzak jarriko dituzte





LEHIOR ELORRIAGA



## “Etxean ez ziguten transmititu gerra sasoiaren familian gertatu zen guztia”

Durango 1936 elkarrekin kaleratu duen aldizkarian Maite Ibarren bizitzari buruz idatzi du haren iloba Katalin Garaitak. Iñaki Garaita semeak familian jazotakoa ikertu du

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Libertad zuen izena. Hala ere, Maite Ibarren inguruko gutxiak dute honen berri. Aita fusilatuta hil zen. Ama Frantziara joan zen bi seme-alabekin, gerratik ihesi. Maite eta bere neba Jose Luis Atxondora etorri ziren, aitita-amamen etxera, ama erbestean larriki gaixorik utzita. Martzaan berehala aldatu zioten izena, beldurraren beldurrez. Harrezkero, isiltasuna nagusitu

zen familian. Hurrengo belaunaldiek, baina, familiaren historia berreskuratzeari ekin diote. Iñaki Garaita Ibarra semeak (Durango, 1961) eta Katalin Garaita Zurikarai ilobak (Durango, 1996) familiaren historiaz jardun dute ANBOTOn.

Zuen familian zelan transmititu dute gerra sasoiaren gertatutakoa?

Iñaki Garaita: Beste etxe askotan lez, gai honen inguruan ez da barbarik

egin. Gerra sasoiaren familian gertatu zen guztia eta horrek amarengan izan zuen eragina ez ziguten transmititu. Haiek oso nagusiak izan arte ez gara kontziente izan. Beldur handia pasatu zuten. Amaren aita, Juan Ibarra, fusilatuta egin zuten. Bere aita ere hil egin zuten, Bitaño inguruan. Juanen neba-arrebek ere asko sufritu zuten. Bizipen hauen guztien eraginez, txikiak zirela ama eta osaba Frantziatik Mar-

tzaara [Atxondo] aititaren etxera bizitzera etorri zirenean ez zieten gauza handirik kontatu. Ia ezer ere ez zekiten gertatutakoaz.

Zuek zelan aztertu duzue familiaren historia?

I.G.: Aitita Juanek Eibarren lan egin zuen eta jende askok ezagutzen zuen. Osaba Jose Luisek nagusiagotan pertsona haiekin berba egin zuen eta historia ezagutzen hasi zen. Beraz, ikertutakoagatik zekien zekiena, ez familiakoek esanda. Nik neuk osabagaz orain 10-15 urte ingurura arte ez nuen gai honetaz barbarik egin.

Noiz hasi zineten familiaren historia ikertzen?

I.G.: 1990ean nire aita hil zenean hasi nintzen ikertzen. Sasoi hartan amari esan zioten alargun geldituta zurtasun pentsioa zegokiola. Horretarako, bere aita fusilatuta izan zela frogatzen zuten paperak behar genituen. Aitita Juanen espediente militarra ikustea lortu nuen. Heriotza sententzia ikusi nuen, baita kartzelaz kartzela egin behar

izan zuen ibilbidea ere. Hortik abiatuta, osabagaz berari kontatu ziotenaz berba eginen hasi nintzen.

Ikerketa zaila izan zen?

I.G.: Zorte handia izan nuen. Aitita Burgosen fusilatuta zuten eta hara

“

**Iñaki Garaita:**  
**1990ean, aita hil zenean, hasi nintzen gerran gertatutakoa ikertzen”**

■

joan nintzen. Kartzelako artxi-boan sartu ginen, baina ez genuen dokumenturik aurkitu. ‘I’ letra falta zela erantzun zidaten, beraz, Ibarra ez zegoen han. Esan zidaten Bilboko artxibo militarrean joateko, eta hantxe aurkitu nuen. Kapitain bati zer gura nuen azaldu nion, eta momentu horretan bertan aititaren espediente atera zidan.





**Juanen emazteak, Isabelek, zelan eraman zuen egoera hori?**

I.G.: Artekalen bizi ziren, Hitz liburu-denda zaharra zegoen lokalaren gainean. Osaba Jose Luis 1932an jaio zen eta nire ama 1933an. Saso hartan, aitita oso markatuta zegoen politikoki. Gerratik ihesi, amama Tolosara (Frantzia) joan zen ume biek. Aititaren arreba bat han zegoen. Isabel gaixotu egin zen, oso larri. Isabelen gurasoek nire ama eta osaba erreklamatu zituzten eta Frantziatik Atxondora etorri ziren bizitzera, Martzaara. Umeak hemen zeudela eta ama Tolosan, gaixorik, ia ez zuten kontakturik eduki. Osabak kontatzen du Martzaan jaunartzea egin zutenean argazkia bidali ziotela amari, postaz. Antza denez, gutunak gurutatu egin ziren bidean, izan ere, berehala jaso zuten ama hil zela zioen gutuna.

**Katalin, zuk familian zelan bizi izan duzu historia honen inguruan izandako isiltasuna?**

Katalin Garaita: Aitak esandako moduan, familian ez dugu gauza asko

“

**Iñaki Garaita: Amuategi batailoiko kapitaina izan zen aitita. Fusilatuta hil zen”**

“

**Katalin Garaita: Aldizkarian garrantzia eman gura zioten emakumeek gerran jasandakoari”**

rik jakin. Durango 1936 elkartearen parte hartzen hasi zen aita, eta gauzak argitzen hasi ziren. Aita hor sartu ez balitz, ez genuen ezer jakingo. Orain egiten ari diren memoria bilketari esker dakigu dena.

**Katalin, amama Maiteri galdetu izan diozu?**

K.G.: Nik ez diot galdetu, baina nire nebak bai. Orain damutzen naiz bizi izan zuenaz gehiago galdetu ez izanaz. Gu jaio ginenean gerra pasatuta zegoen, eta amamaren komentario asko ez genituen aintzat hartzen. “Zuek gerra bizi izan bazenute”, esaten zuen. Orain, bizi izan duena ezagututa, beste ikuspuntu bat dut.

‘durango1936.org’ webgunean orain dela urte batzuk Maite eta Jose Luis neba-arrebei egindako elkarrizketa entzungai dago. Umetan Martzaara itzuli zenean sarnagaz bueltatu zela azaltzen du Jose Luisek.

I.G.: Grabazioa egiten ari ginen unean enteratu nintzen horretaz, baita beste kontu batez ere. Osabak azaltzen duenez, Martzaara etortzerakoan aititak ez zuenez ezagutzen, hankan zuen orban bati begiratu zion bera zela ziurtatzeko.

**Maiteri izena aldatu zioten. Libertad zuen izena.**

I.G.: Bai, Atxondora itzuli arte Libertad zen. Aitita-amamek beldur handia zuten eta Mari Tere jarri zioten. Jose Luis nebak 8-9 urte izango zituen, eta Libertad deitzen

“**Katalin Garaita: Orain damutzen naiz amamari bizi izan zuenaz gehiago galdetu ez izanaz”**

jarraitzen zion, aititak kargu hartu zion arte. Gurean, Mari Tere barrik, Maite deitzen diogu. Osabari Progreso izena jarri gura zioten. Jose Luis aititak bere izena jartzeko konbentzitu zituen.

**Katalin, Durango 1936 elkarteak kaleratu berri duen aldizkarian amama Maiteri idatzitako testu bat agertzen da. Zaila izan da idaztea?**

K.G.: Garrantzia eman gura zioten gerran emakumeek jasandako guztiari, eta horregatik eskatu zidaten amamaren historia kontatzeko. Emakumeei gerran borrokatu zutena eskertu gura genien.



LIBERTAD  
IBARRA PAGALDAI

**Zuen familiako emakumeek asko sufritu eta borrokatu zuten.**

I.G.: Nire aititaren familian, lau neba-arreba ziren, gizon bi eta emakume bi. Gizon biak fusilatuta hil ziren. Andresa 14 hilabetez Ondarretako kartzelan egon zen. Pakitari buruz gutxi dakigu. Heldu zaigunez, miliziar jantzita ikusi zuten, eta erbestera joan zen. Beraz, gure familian emakumeek oso gaizki pasatu zuten, eta besteak adina borrokatu ziren.

**Zuek familian egin duzuen lanketa Durango 1936 elkarteak kolektiboki egiten dihardu. Gerra sasoioko hamaika testigantza jaso dituzue.**

I.G.: Gurea historia bat gehiago da, beste hainbaten artean. Durangon ehun elkarrizketa inguru jaso ditugu dagoeneko. Bizitako sufrimendu hori ikusarazteko

sortu genuen elkarte. Badakigu familia askoz gehiago egon behar direla, baina jende asko dago horretaz barbarik egin gura ez duena.

“**Iñaki Garaita: Amaren aldetik beti sentitu dut isiltasun hori gu babesteko modu bat zela”**

Elkartean batzen garen bakoitzean konturatzen gara berandu heldu garela. Hamar urte lehenago hasi bagina memoria historikoa berreskuratzen... Baina hurrengo belaunaldiak transmititutakoa jakin dezakegu.

**Zergatik horrelako isiltasuna, bereziki Durangon?**

Alde guztietan gertatu da. Durangon zergatik? Durango oso herri karlista izan da, eta ideia batzuk erakustea arriskutsua zen. Beldur hori barnatzen joan dira pertsonak eta familiak. Amaren aldetik beti sentitu dut gerraren inguruko isiltasun hori gu babesteko modu bat zela.

**DURANGO • I.G.**

Durango 1936 kultur elkarteak, memoriaren transmisioan eragin guran, aldizkaria kaleratu du. [durango1936.org](http://durango1936.org) webgunean urteetan bildutako memoriaren ondarea ezagutzera ematea da urtekari honen helburua. Patxi Zurikarairi buruzko erreportajeaz gain, Antonio Cabello, Juan Mari Eskubi, Uri Ruiz eta Jimi Jimenez elkarrizketatu dituzte.

Kolaborazioen artean, Joseba Sarrionandiaren hiru poema daude, horietako bi aurretik argitaratu bakoak. Poesia lana Irati Eguren-ek ilustratu du. Maria Gonzalez Gorosarri kazetariak, ostera, *Emakumeak preso: konpromiso politikoa ukatu gura izan zieten* artikulua idatzi du. Gerediagako Jon Irababalek eta Aitziber Irigoras Du-

## "Isilarazitakoen ahotsa" transmititzeko aldizkaria banatuko dute Agurrik Gabeak omenaldian

1976ko martxoaren 3ko Gasteizko gertakariak gogoan izango dituzte borrokalari antifaxisten omenaldian, domekan

rangoko alkateak borobiltzen dute kolaboratzaileen zerrenda. Aldizkariaren koordinazioa Unai Iturriagak egin du, eta argazkiak Zaloa Fuertesek.

**Agurrik gabeak**

Borrokalari antifaxisten omenez orain hamaika urtetik elkarteak antolatzen duen Agurrik Gabeak

omenaldiak 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko gertakariak izango ditu gogoan, domekan, Plateruenean, 18:00etan. Horretarako, ikus-entzunezko bat proiektatuko dute. Bost hildako eta 200 zauritu eragin zituen oldarraldiaren testigantza azalduko du Imanol Olaberria langile otxandiarrek.



Irati Eguren, Andoni Barreña, Maria Gonzalez eta Katalin Garaita martitzeneko prentsaurrekoan.

**Espediente horretan zer aurkitu zenuen?**

I.G.: Guardia Zibilaren telegramak daude, zelan ihes egin zuen eta non aurkitu zuten azaltzen dutenak. Pelikula bat egiteko moduko dokumentuak dira.

**Paper horien arabera, nolakoa izan zen Juanen bizitza?**

I.G.: Deabrua ematen zuen, oso gorria eta oso arriskutsua. 1934an

“**Iñaki Garaita: Bilboko artxibo militarrean aurkitu nuen aititaren espedientea”**

heriotzara kondenatu zuten, baina libratu egin zen. Baten bat hiltzea leporatzen zioten, baina ez zegoen frogarik. Azkenean, gerrara joan zen eta Amuategi batailoiko kapitaina izan zen. Harrapatu, eta fusilatuta egin zuten.



## “Gure hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko joera eduki beharko genukeela uste dut”

Bilboko udaltzain bati euskaraz egitea eskatzearen, gatazka sortu eta isunak jasoko ditu Arkaitz Zarragak



Santutxuarra da izatez Zarraga, baina gaur egun Durangon bizi da.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

**Bilbon txosnak desmuntatzen zebilela, euskaraz berba egiteko eskubidea urratu zion udaltzain batek Arkaitz Zarraga Azumendiri. Hori gutxi ez, eta autoritateari errespetu falta leporatu diote. Isunen zain dago, baina errekurritu egingo ditu. Twitterren eta erakundeetan salatu zuen kasua, eta eragina lortu du.**

**Zelan izan ziren gertakariak?**

Txosna gunean autoagaz sartzeko pase bat edukitzen dugu konpartseroek. Betiko moduan eta betiko bidetik atera nintzen konpartsatik, denok egunero lez. Nire harridurarako, udaltzainak geratu egin ninduen. “Has visto lo que has hecho?” galdetu zidan. Niri euskaraz egiteko eskatu nion, eta lasaiago berba egiteko ere bai, erasokor jarri bai-

tzen. Erantzun zidan hizkuntza bietako bat aukeratzeko eskubidea zuela. Baina administrazioarekiko hizkuntza nik aukeratzen dut, eta euskaraz jakin ezean beste norbait ekartzeko eskatu nion. “Aparca el coche” esan eta paperak eskatu zizkidan, harrotuta. Beste udaltzainetako bat nire ikasle ohia zen eta lotsatu egin zen. Salatu ninduen udaltzainak esan zidan salaketa bi jasoko nituela, bat trafiko kontuagatik, eta bestea autoritateari errepeustu faltagatik. Askotan gertatzen dena da salatzailea salatua izatera pasatzen dela.

**Udalak ez zaitu babestu?**

Udalagaz batzar bat eskatu nuen berba egiteko, eta alkateak ez dit galdetu ere egin. Udaltzainaren bertsioa sinistu zuen. Horren araber, ni oso harro agertu nintzen;

hasieran gaztelaniaz berba egin nuen, eta ezer irabaziko ez nuela ikustean pasatu nintzen euskara. Ez da erraza euskaraz bizitzea Bilbon, baina ni saiatzen naiz eta bereziki udaltzainekin eta funtzionarioekin, aurretik sektore horretan lan egin dudalako.

**Udal bilkuran ere atera zen gaia.**

Oso mingarria izan zen, alkateak aditzera eman baitzuen nire jarra matxista izan zela. Niri berdin zidan neska edo mutila zen. Kasualitatez, Bilboko Udalak ikaragarriko hutsunea du gai bietan. Euskararen ordenantza euskalgintzaren aldarrikapen historiko bat da eta gobernuak oraindik dio ez dela beharrezkoa, inposiziotzat har daitekeela. Bestetik, emakumeen etxea sortzea aldarrikapen historiko bat da eta ez dute ezer egin.

**Hain justu, ordenantzarik ez edukitzeak ahalbidetu du zuri gertatua.**

Udaletan era guztietako ordenantzak daude: espazio publikoarena, hirigintzakoak, zarataren ingurukoak... hizkuntzak ere behar du. Bilbo da ordenantzarik ez duen herri bakarrenetakoa.

**Hizkuntza Eskubideen Behatokiak babestu zaitu, Bilboko euskalgintzak ere bai... Zure salaketak gaia plazaratzeko balio izan du.**

Urraketa asko gertatzen dira eta asko ez dira heltzen honaino. Askotan gertatzen zaigu, neuri ere bai, euskararen *espaloitik bajatzen* garela, ez dugulako etengabeko borroka batean bizi nahi. Bilbon euskaraz bizitzeko, etengabe edukiko zenituzke horrelakoak. Hala ere, uste dut gure eskubideak aldarrikatzeko joera bat eduki behar dugula.

## Durango erain publikoak energia-puntu bihurtzea aztertzen dabilza

**DURANGO • M.O.**

Ekainean hasi eta 2019ko martxora arteko prozesuan, erain publikoetan energia berriztagarrien inguruko azterketa egiten dabil udala. Helburu nagusiaren artean, erain publikoak “energia-puntu” bihurtzea gura dute, inguruko erainkinetan energia berriztagarri edo konbentzionalen zerbitzuak sortuz eta banatuz.

Hain zuzen ere, plan hori aurkeztu du udalak aurtengo Conama sarietara. Estatuko lehiaketa da, etekin ekonomikorik bakoa, udalerrien ahaleginari balioa ematen diona. Azaroaren 16an iragarriko dituzte irabazleak, eta hile amaieran Madrilan egingo diren jardunaldietan emango dituzte sariak.



## 1.300 lagun batuko dira Kurutzia ikastolako 50. urtemugan

**DURANGO • M.O.**

Kurutzia ikastolak 50 urte bete ditu aurten, eta urtean zehar hainbat ekitaldi egin ostean, bihar izango dute ekitaldi nagusia. Landako Gunean egingo duten bazkarian 1.300 lagun batuko dira. Goizean umeentzako puzgarriak egongo dira bertan. 12:30ean kalejiran irtengo dira ikastolatik eta Kurutzia kaletik, aldi berean, eta Alde Zaharrean jarraituko dute. Bazkalostean ekitaldia egingo dute, eta gero, Luhartzegaz erromeria.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko azaroaren 9a  
17. urtea - 741. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua





## Udalak onartu egin du familiek Durangon ludoteka sortzeko egindako eskaria

**DURANGO • M.O.**

Durangoko Familiek elkarteak mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran, eta aho batez onartu zen. Gaizka Uriarte gurasoak irakurri zuen mozioa. "Ez da egia Durangon haur eta nerabeentzako ekintzak egiten ez direla, baina sententzia dugu ez dagoela plan integralik. Momentuko okurrentziak izaten dira, eta iritzia jakin barik". Bere esanetan, ludoteka "familia askorentzako erreferentzia puntu" izango litzateke. Etorkezunera begira, Correosen eraikin zaharra ludoteka bihurtzeko proposamena plazaratu zuen. "250 familia gara eta elkarlanerako prest gaude", aipatu zuen.

EAJ eta PSE-EEren gobernua baietza eman zien, baina "bentako beharrezana" jakiteko, azterketa bat egitea eskatu zuen. EH Bilduk Elorrioko Ametsola proiektua ipini zuen eredu lez. Herriaren Eskubidearen ustez, "umeak eta nerabeak Durango ahaztuak dira".

# Iurretako paper fabrikak Ibaizabalera gai kutsakorrek isuri dituela azaleratu du EH Bilduk

90eko hamarkadan estalitako hondakinen gune batetik gai kutsakorrek iragazi dira, eta errefera ailegatu dira

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**

80ko hamarkadan, Iurretako paper fabrikaren eta gasolindegiaeren artean hondakinentzako eremu bat sortu zuen enpresak -Celulosas del Nervion, orduan, Smurfit Kappa egun-, eta 90eko hamarkadan estali egin zuen. EH Bilduk ortofoto publikoen bidez ikusi du aldaketa hori. Euriaren eraginez gai toxikoak iragazten zirenez, likidoa araztegi bideratzeko sistema bat ipini zuen enpresak neurri zuzentzaile lez, baina EH Bilduk erakutsi du sistema horrek ez duela funtzionatzen. Likidoa Ibaizabal errefera ailegaten da, eta bertako ura kutsatuta dagoela egiaztatu

## Bertako ura kutsatuta dagoela egiaztatu du Labaqua Tecnalia laborategian

du Labaqua Tecnalia laborategian eginiko analisi batez.

Analisi horretan hurrengo agertu da: Ph maila 11,4koa dela, muga 9,5 denean gehienez. Eta oxigenoaren eskari kimikoan 711ko balioa, gehienez 500 denean. Kontua da muga horiek araztegi baterako ezarritakoak direla, eta, kasu honetan, zuzenean errefera isurtzen den likidoa da. Beraz, arau urraketa oraindik eta larriagoa izango litzateke.

EH Bilduk maiatzean izan zuen gaiaren berri, herritar batek abisua emanda. Oteroren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundia jakinaren



Otero, Dani Maeztu Durangoko zinegotziagaz eta Liher Aiertzaguen lurretako zinegotziagaz batera, kutsatutako likidoa erakusten.

gainean zeuden lehendik, eta 6 hileko epea eman zieten neurriak hartzeko, gaia publiko egin aurretik. "Agintariek jakin arren, 6 hileko ostean gauzak berdin daude".

Alderdiak mozioak aurkeztuko ditu Iurretako, Durangoko eta Zornotzako udaletan. Isuriak ur-

## Gaur legebiltzarreko kontrolerako bilkuran galdera egingo diote Arriola sailburuari

gentziaz gelditzea, kutsatutako eremua garbitzea eta, hala badagokio, enpresari espedientea zabaltzea eskatuko dute. Horrez gainera, gaur legebiltzarreko kontrolerako bilkuran Arriola sailburuari galdera egingo diote gaiaz, "jakiteko zergatik ez duen ezer egin".

Jaurlaritzaren datuetan lur kutsatu lez katalogatuta dago hondakinen gunea, eta Mikel Otero legebiltzarkidearen esanetan horrelako 14.000 zoru daude erkidegoan.

## Kobre oxidoaz eztabaida

Bestalde, ingurumen arloagaz jarraituta, Aldundiak kobre oxi-

do bota gura du, airez, basoetan gaixotutako pinuak tratatzeko, eta Durangoko osoko bilkuran horren Herriaren Eskubideak, pertsoneri eta ingurumenari kaltea ekarriko dielakoan. "Aire txarra daukagu, eta horri kobre oxidoa gehitu gura diote", esan zuen Jorge Varela. EH Bilduk soilik babestu zuen mozioa.

EAJk eta PSE-EEK onartu zuten ordezkoko mozioan, "ahalik eta ingurumen-inpaktu gutxienagaz" lan egitea eskatu zuten. Gainera, Durangoko herri-basoak tratamendu esperimentalarako eskaini zituzten, Aldundiak hala beharko balu.

# Idoia Buruaga EH Bilduko alkategaia da berriro Elorrión, eta Ander Uriarte lehenengoz aurkeztuko da Zornotzan

Buruaga Elorrioko alkatea da legegintzaldi honetan eta Uriartek zinegotzi kargua du Zornotzan



Idoia Buruaga eta Ander Uriarte, Elorrioko eta Zornotzako EH Bilduren alkategaiak, hurrenez hurren.

**ELORRIO-ZORNOTZA • J.D. / M.Z.**

2019ko udal hauteskundeetan Elorrión eta Zornotzan aurkeztuko diren alkategaien berri eman du EH Bilduk. Elorrión gaur egungo alkateak errepikatuko du: Idoia Buruagak. Zornotzan, Ander Uriarte izango da alkategaia, Urko Lopez ordezkatzuz.

Idoia Buruagak 37 urte ditu eta Arte Ederretan lizentziatua da. "Martxan dauden proiektuak amaitu, beste hainbat hasi eta etorkizuneko amestutako Elorrión herritarrekin batera eraikitzen jarraitu gura dut. Denontzako lekua

izango duen herri ireki, euskaldun, parekide, parte-hartzaile eta bizia", adierazi du Buruagak.

## Uriarte lehenengoz alkategai

Ander Uriartek 45 urte ditu eta fabrikazio mekanikoko goi-teknikaria da. Urritxen dagoen Zornotza Lanbide Heziketako Zentroan irakaslea da, 2015-2019 legegintzaldian zinegotzia da udalean eta lehenengoz aurkeztuko da alkategai.

EH Bilduren barne prozesuan proposatutako zortzi pertsonetatik bi agertu ziren prest aurrera egiteko: Ander Uriarte Pujana eta Iñaki Iza Zarazua. "Izak gurago izan du Uriarteren ondoan udal kontuez jantzi, batez ere esperientzia eza argudiatuz", adierazi dute ohar batean. Hala ere, "Gogotsu azaldu da Uriarteren udal taldean izateko", zehaztu dute.



## Merkataritza biziberritzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko asmoz, 'herria ilunetan' kanpaina jarri dute martxan

Azaroaren 12tik 18ra bitartean, Elorrioko 114 komertziok plastiko beltzak jarriko dituzte erakuslehoetan. Azaroaren 23 eta 24rako, berriz, argiaren asteburua antolatu dute

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko merkataritza bultzada bat eman eta hau biziberritzeko asmoz, *herria ilunetan* kanpaina jarriko du martxan Elorrioko Merkataritza Elkarteak. "Leku guztietan bezala, apurka-apurka merkataritza galtzen doa eta hau suspertzea ezinbestekoa iruditzen zaigu", adierazi du Izaskun Agirre merkatarien elkartearen presidentek.

Hori horrela, azaroaren 12tik 18ra bitartean Elorrioko 114 komertziok plastiko beltzak jarriko dituzte erakuslehoetan. "Ekimen honen bidez herria ilunetan geratu da eta bizia ematen dioten komertzio txiki barik Elorrio nolakoa izango litzatekeen ikusi ahal izango dute herritarrek", jarraitu du.

Astebete ilunetan egin ostean, azaroaren 19an plastikoak kendu

**Astebete ilunetan egin ostean, azaroaren 19an plastikoak kendu eta kaleak alaituko dituzte**

**Argazki lehiaketan parte hartzeko argazkiak azaroaren 22rako aurkeztu beharko dira**

eta kaleak alaituko dituzte. Astebururako, azaroaren 23 eta 24rako, argiaren asteburua antolatu dute. "Elorriarrak sentsibilizatzeko gain, herriko gazteei komertzioak hartzeko deia egingo diegu; jendea jubilatzen dabil eta eurak dira gure etorkizuna", esan du Agirrek.

Bestalde, Herria Ilunetan Argazki Lehiaketa ere antolatu dutela jakitera eman dute. Argazkiak azaroaren 22rako aurkeztu beharko dira eta irabazleen berri azaroaren 24an emango dute.

## IU! Gazte ekimenaren barruan ateak irekitzeko jardunaldia egingo dute Etxegon

### IURRETA • AITZIBER BASAURI

*BooktuberBoom #kedada...* lehiaketagaz hasiko du ikasturtea IU! Gazte programak, gaur. Etxego izena jarri dioten eraikin hexagonalean egin dute hitzordua, 15:30etik 17:30era. Horregaz batera, hilaren 17rako, ateak irekitzeko jardunaldia antolatu dute Etxegon, eta eraikina nola atondu aztertzeko tailerra, hilaren 23rako. Horretarako, Isma Iglesiasen laguntza izango dute.

12-18 urteko gazteei zuzenduta, ideia lehiaketa ere egingo dute. 500 euroko saria lotu dute eta kultur etxean eta institutuazabaldu dira parte hartzeko bideak. Hala ere, [gazteideiak@iurreta.eus](mailto:gazteideiak@iurreta.eus) posta eta Iu GAzte (@iugazte) instagram kontua ere erabili daitezke.



Ezkerretik hasita, Txema Mairena, Izaskun Agirre eta Ana Deskarga.

## Abeletzeko lanak azaro amaierarako amaituta izatea aurreikusten dute

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eskolako irisgarritasuna bermatzeko asmoz, iaz Learreta-Markina kalea norabide bakarreko bihurtu zuen udalak. Orain, proiektu horri jarraipena eman guran, Abeletxe kalean dabilta

## 'Ametzola' haur, guraso eta nerabeentzako gune berria

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Adingabekoei aisialdi zerbitzu integrala eskaintzeko asmoz, 'Ametzola' izeneko gunea atonduko du Elorrioko Udalak. Haurrentzat, euren gurasoentzat eta nerabeentzat izango den txokoaren helburua ludoteka zerbitzua berritzea, egokitzeta eta beste hainbat eskaintzekin

osatzea izango da. "Etorkizuneko Elorrioren gure haurrak eta nerabeak zaindu gura ditugu, eta gune hau helburu horretarako egin dugu", adierazi du Idoia Buruaga alkateak.

Bestalde, Txatxilipurdiko ki-deek, gazte gunearen kudeatzaileek, hiru hezitzaile behar dituztela jakitera eman dute.



Ezkerretik hasita, Txus Arrieta, Maitane Lopez eta Idoia Buruaga.

**Berrizko Udalak 195.000 euro bideratu ditu Abeletxe kaleko lanak egiteko**

lanean. Kale hori ere norabide bakarreko egin gura dute, eta, lanak amaitutakoan, azaro amaieran, herrirako sarrera egongo da Abeletxe kaletik. Udalak 195.000 euro bideratu ditu lanak egiteko.

**DIBA**  
KOOPERATIBA

Durangaldeko  
Baserritarren  
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

**Seguros  
Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK  
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
[jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)



# SALGAI

Durangaldeko ohiko saltokietan



**Ezagutu urtekaria**

**Azaroak 17 larunbata, Andra Mariko elizpean, goizez**



## Puntu beltz batzuk argitu eta kale argiak LED argiztapenera aldatuko dituzte

**OTXANDIO** • J.D.

Herriko kale argi denak LED sistemara aldatzeko prozesua amaituko du udalak. Gune gutxi batzuetako eta Mainondoko futbol zelaiako argiteria aldatzea

**Herritarren eskaerei erantzunez, kale argi berriak jarriko dituzte puntu ilunak ekiditeko**

baino ez da falta horretarako. Horregaz batera, herritarren eskaerei erantzunez, kale argi berri batzuk ere jarriko dituzte Maiñerrotan, Mainondon eta etxebizitza sozialetako plazan, puntu ilunak zirelako.

## On Martin Eguna ospatuko dute asteburu honetan Atxondon

**ATXONDO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondon ohitura bilakatu da On Martin Eguna ospatzea. Azaroaren 11n jai giroa izaten da nagusi Apatan. Egun hori ospatzeko, Atxondoko Udalak eta Marixurrike Aisialdi Taldeak hainbat ekintza antolatu dituzte. Gaur, barikua, 17:00etan, umeentzako eskulan tailerra egongo da eta, ostean, 18:30 inguruan, txokolatea bananduko dute. Domekan, berriz, udalak antolatuta, txistorra-jana egongo da, 19:00etan.

**Domekan, azaroaren 11n, txistorra-jana egingo dute 19:00etan, Apatako plazan**

# Abadiñoako Udalak Matienako eskalada-hormarako ordenantza onartu du, zabaldu zutenetik urte bira

Araudi berriaren arabera, astegunetan 19:00-22:00 bitartean erabili ahal izango da eskalatzeko kirol gunea

**ABADIÑO** • A.M.


Ia urte bi zabalik egon ostean, urriko osoko bilkuran onartu zuten Abadiñoako eskalada-hormaren erabilera arautuko duen ordenantza. "Orain artean eskolako umeek baino ezin izan dute erabili. Guk herritar guztientzat zabaltea gura genuen, baina hori modu egokian egin behar zen" esanda arrazoitu zuen Jose Luis Navarro alkateak ordenantza aurkeztearen atzerapeña. Izan ere, orain artean eskolako umeek begiraleekin erabili ahal izan duten arren, herritarrentzako erabilera arautu barik egon da. Ordenantza aho batez onartu zuten, baina EH Bilduk "hausnartzera" gonbidatu zituen udal gobernuak kideak. "Urte bi iraun du prozesu honek, liberazio erdi bat tarteko egonda, gainera", kexatu zen Mikel Urrutia zinegotzia. Horrez gainera, araudia "hankamotz" jaio dela azpimarratu zuen. Izan ere, ordenantzak dioenaren arabera, astegunetan 19:00-22:00 bitartean egongo da erabilgarri eskaladarako gunea.

**Navarroren berbetan, ordenantza modu "egokian" onartu beharagatik atzeratu da**

**Ia urte bitan eskolako umeek baino ezin izan dute erabili Matienan dagoen eskalada-horma**

**"Eskaladaren erakusleiho"**

Baietza eman arren, eskalada-hormaren inguruko beste gogoeta bat ere egin behar du udalak EH Bilduren ustetan. "Atxartek Abadiño



Eskola ondoko erabilera anitzeko gunean dago eskalada-horma.

eskaladaren goi mailara darama, eta, beraz, uste dugu rokodromoak ere tamaina horretakoa izan behar-lukeela".

**EH Bilduk baiezkua eman dio ordenantza berriari, baina "hausnarketa" egin behar dela uste du**

**Konponketak hilerrian**

Bestalde, Abadiñoako Udalak 242.000 euro bideratuko ditu kanposantuaren konpontze lanetarako. Navarro alkatearen berbetan, obrak 2019an hasiko dira eta hilerriari "itxura berria" emateko balioko dute. Umeltasun arazoak eta itoginak konpontzea da helburua.

**2019. urtean, Abadiñoako Udalak 242.000 euro bideratuko ditu hilerria konpontzeko**

# GAER DESINFEKZIOAK



**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

katerin  
ardoak  
iñaki  
uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com





Amaia Sarrionandia, Aitor Lopez (Amankomunazgoko presidentea), Arrate Arana, Pilar Peñalba eta Maia Alberdi.



Adikzioak prebenitzeko zerbitzuak Amankomunazgo osoko ikastetxeetan ematen ditu ikastaroak.

## Durangoko Amankomunazgoan elkarlanean lantzen dituzte adikzioak prebenitzeko ekimenak

Adikzioen inguruko premiak zeintzuk diren ikertzeko, hainbat eragile elkarriketatzen dituzte

Durangoko Amankomunazgoaren Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak hainbat alorretan dihardu lanean. Prebenitzeko, ondo informatuta egotea eta jarre-  
rak lantzea garrantzitsua da, eta ildo horretan ari dira. Ikastetxeetan gazteei zuzendutako saioetan hainbat gai lantzen dituzte: drogak, sexualitatea, emozioak, sare sozialak, ... batez ere, LH, DBH, Batxilergo eta Ziklo Formatiboetako Amankomunazgoa ikastetxe guztietan. Gai horiek seme-alabengan duten eragina lantzeko, ostera, guraso eskolak antolatzen dituzte. "Guraso askok uste dute gaur egun euren sasoi-

baino droga gehiago daudela eta gehiago kontsumitzen dela, baina datuek kontrakoa diote. Drogen kontsumoa, orokorrean, jaitxi egin da, batez ere alkoholarena, eta kontsumitzen diren drogen inguruan ez dago aldaketa nabarmenik", diote Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuko arduradunek. Hala ere, sare sozialak eta mugikorren erabilera ere gurasoek izaten duten beste kezketako bat izaten da.

### Hurrengo ikastaroak

Horrez gain, Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak beste programa bi ditu martxan. Alde bate-

rik, erretzeari uzteko ikastaroan eman daiteke izena urte osoan zehar. Bestetik, emakumeen antsietatearen inguruko talde terapia ere laster abiatuko dute. Ikastaro honetan azaroaren 14ra arte apuntatu daiteke eta eguaztentean izango da, 15:30etik 17:30era.

### Tokiko Plana

Baina, adikzioen esparruan, zeintzuk dira Amankomunazgoak dituen premiak? Lau urterik behin Prebentzio Zerbitzuak drogari eta teknologien erabilerari buruzko ikerketa egiten du. Hemendik ateratako datuekin eta hainbat eragileren iritzia jasota (irakasleak, gu-

rasoak, ikasleak, gazte lokaletako jendea, komertzioak, Ertzaintza, Amankomunazgoko alkateak, Gaztetxeak, ...) adikzioen inguruko tokiko plana osatzen dute.

Dagoeneko Plan Lokala abiatu dute eta urtebete emango dute da-

### Emakumeen antsietatearen inguruko terapia laster abiatuko dute

### Erretzeari uzteko ikastaroan urte osoan zehar eman daiteke izena

tuak jasotzen. Orain urte batzuk drogomenpekotasunera mugatzen zuten plana, baina ludopatia tratatzeko beharra nabaritu zuten, eta adikzioena izatera pasatu da. Laugarren tokiko planagaz hurrengo bost urteetarako programazioa diseinatuko dute.

### ESKOLA MAILAN:

- Drogen prebentzioa eta arriskuaren murrizketa
- Heziketa afektibo-sexuala
- Teknologia berrien erabilera egokia eta ludopatia
- Emozioen kudeaketa
- Balioen heziketa

### FAMILIAN ETA MAILA KOMUNITARIOAN:

- Guraso eskolak eta hitzaldiak
- Erretzeari uzteko ikastaroak
- Emakumeak eta antsietatea ikastaroa
- Tabakorik Gabeko Nazioarteko Eguna – Maiatzak 31
- Alkoholaren arriskuak prebenitzen jaietan
- Preserbatiboaren banaketa jaietan
- Arreta eta aholkularitza zerbitzua

## Zuzeneko eta telefono bidezko arreta zerbitzua

Adikzioen Prebentziorako Zerbitzua  
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa  
Askatasun Etorbidea, 11  
48200 Durango  
94-620.05.20



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango



# Garaiko pilotalekua zarratu egingo dute albotik, 131.000 euro erabilita

Aho batez onartuta, 2019rako aurrekontuko inbertsio nagusia izango da pilotalekuarena



Kirola egiteko funtzioaz aparte, herriko ekintzetarako ere erabiltzen dute pilotalekua.

## GARAI • MARKEL ONAINDIA

Teilatua eduki arren, eskumako albo zabalik duen pilotalekua da Garaikoa. Eguraldi hotza eta euritsua egiten duenean igartzen da, batez ere, hormaren falta. Horregatik, albotik zarratzea erabaki du udalak. Joan zen astean Herriko Taldeak eta EAJk aho batez onartutako 2019rako udal aurrekontuan, 131.000 euroko partida gorde zuten pilotalekuko obra egiteko, inber-

**Aurten teilatua konpondu dute, eta hori ere urteko inbertsio handietako bat izan da**

**25.000 euro gorde dituzte hirigintzarako plan orokorraren prozesurako**

tsio nagusia izanik. Aurten teilatua konpondu dute eta hori ere urteko inbertsio handietako bat izan da.

2019rako beste inbertsio bat ere egingo du udalak. Izan ere, 25.000 euro gorde dituzte hirigintzarako plan orokorraren prozesurako. 156.000 euro egongo dira inbertsioetan, guztira 530.000 eurokoa den udal aurrekontuan.

## Nikolas Alzolaren inguruko ibilbide literarioa egingo dute domekan

### IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Nikolas Alzola margolari eta idazlearen lana ezagutara emateko ekintza sortaren barruan, ibilbide literario bat egingo dute, domekan, Izurtzako hainbat

**Idatzi zituen ipuin asko Izurtzan kokatuta zeuden eta eurretatik zehar egingo dute ibilbidea**

txokotatik. 09:00etan hasiko da, plazan. Alzolak idatzitako ipuin asko Izurtzan kokatuta zeuden (jaio zen Tontorra baserrian, Bekotorren, Etxaburudorreen...) eta eurretatik zehar antolatu dute ibilbidea.

## Herritarrek antolatuta, ermiten arteko ibilbidea egingo dute domekan

### MAÑARIA • J.D.

Iaz sortutako ekimenari jarraituz, Mañariko Ermiten Arteko II. Ibilbidea antolatu dute herritarrek domeka honetarako. 09:00etan hasiko da eta izenematea 08:15etik aurrera egin daiteke plazan (2 euro). Ibilbide biren artean aukeratzeko modua dago. Laburrak 5,3 kilometro ditu eta San Lorentzoz amaituko da. Luzea egin gura dutenek San Lorentzotik aurrera jarraituko dute, 14 kilometroko zirkuitua osatu arte.

# Javier Garciaren zirkua izango da 'Zaldibart' kultur ekimeneko hurrengo ikuskizuna

Herriko sortzaileei presentzia ematea eta euren lana plazaratzea da udalak sustatutako 'Zaldibart' ekimenaren helburua

## ZALDIBAR • A.M./M.O.

Javier Garciaren zirkua izango da udalak sustatu duen *Zaldibart* kultur ekimeneko hurrengo ikuskizuna. Herriko sortzaileei presentzia ematea eta euren lana plazaratzea da ekimenaren helburua. Garciak azaroaren 16ko iluntzean eskainiko du ikuskizuna, *El circo de lo cotidiano* deiturikoa. 60ko hamarkadan kokatzen da, eta kale garbitzaile baten egunerokoa kontatzen du.

**60ko hamarkadan kokatzen da eta kale garbitzaile baten egunerokoa kontatzen du**

**Garciak adierazi du "oso pozik" dagoela bere lana eta pasioa dena bere herrian aurkezteagatik**

tzen du, zirkurako erreminta lez erratzak eta antzekoak erabilia.

Zirkuaren munduan murgiltzeko, Garciak Bartzelonara joan behar izan zuen orain zenbait urte, eta adierazi du "oso pozik" dagoela

16an bere lana eta pasioa dena bere herrian aurkeztu ahal izateagatik.

### Hasteko, 'Surami-k'

*Zaldibart* ekimenari Javi Olmo zeramikariak eman zion hasiera zapa-

tuan, *Surami-K* ikuskizunagaz, Elsa Novelle lagun zuela. Zeramikari modu bisual batean balioa emateko, suagaz jolastu ziren. Picassoren *Gernika* laneko zenbait irudi sortu zituzten elkarlanean.



Joan zen zapatuan hasi zen 'Zaldibart', Javi Olmoren 'Surami-K' ikuskizunagaz. Delfin Zubizarreta

## Gaztetxoek pisu jaurtiketak eta dardo-jokoa probatzeko aukera dute domekan

### MALLABIA • J.D.

Mallabia Kirol Taldea ekintza berriak prestatzen hasi da. 16 urtera arteko gaztetxoei zuzendutako Superigandea da horietako bat. Hilean birritan egiten dute jardueraren bat, eta domeka honetan da hurrengoa. 11:00etan Mallabiko eskolako frontoira doazen gaztetxoek hainbat jaurtiketa mota (diskoa, xabalina...) probatzeko aukera izango dute. Horregaz batera, dardo-joko bat ere jarriko dute, besteak beste.





Durungaldean barrena furgoneta berezi bat ibili zen, megafoniatik hedabide berriaren jaiotza iragartzen.

## Hareek denporak!

# ANBOTO astekaria, 17 urtez euskaraz informatzen

2001eko azaroaren 9an argitaratu zen ANBOTO astekariaren 0. alea, gaur 17 urte hain justu. Orduetik, Durungaldean euskaraz informatzeko bideari jarraitu dio, barikuro. Papereko proiektuaz aparte, webgunea ere jaio zen gerora, gaur egun milaka bisita dituena egunero. Hau guztia milaka irakurlek astero proiektuari emandako babesari esker izan da.

Alboan ageri den argazkia 0. alekoa da. Ale berezia izan zen, proiektuaren azalpena egiteko balio izan zuena. Noski, kalean ere propaganda lana egin zuten orduko langileek eta euskara elkarteetako boluntarioek, eta herrietan aurkezpenak egin zituzten. Ez zeuden Whatsapp, Instagram edota Facebook, ahozahoko lanaren sasoia zen. Eta oraindik ere sasoiko gaude **M.O.**

## Politikan

Dani  
Maeztu Perez  
EH Bildu



### Kurutziaga Ikastola eta MTV

Durangoko azken osoko bilkuran entzundakoak behartu nau artikululu hau idaztera. Bilkura horretan alkate andereak ezagutzera eman zuen, Durangon MTV-k antolatutako kontzertuarengatik 2.969 euro ordaindu ditugula. Kostu hori soilik Landakoko pabilioiaren alokairuaren prezioa da. Ez zuen bota udaltzaingoa, brigadilla edo garbitasun zerbitzu publikoak erabiltzeagatik zein izan den kostua. Baina, jarraian, alkateak erantsi zuen, asteburu honetan bere urteurrenaren jaialdirako ikastolak pabilioia erabiltzeagatik ordaindu beharko lituzkeen 2.460 euroak ere ordainduko dituela udalak. Zertara zetorren lekuz kanpoko konparaketa hori?

Bai, Durangon, herriko kultur, kirol, merkataritza edo hezkuntza eragileek ordaindu egin behar dute urtean zehar egun gehienetan hutsik dagoen pabilioi publiko erabiltzeagatik. Are gehiago, udalak berak erabili nahi badu, ordaindu egin behar du. Beraz, durangarrok birritan ordaintzen dugu; lehenengo eta behin, pabilioia eraikitzeak kostatutako 7,5 milioi euroak, gehi eskatutako maileguaren interesak eta, horretaz gain, erabiltzeagatik ere, ordaindu egin behar. Orduan, arazoa ez da Ikastolari udalak ordaintzen diola pabilioiaren alokairua, baizik eta ea herriko eragile batek zergatik ordaindu behar duen leku publiko bat erabiltzeagatik. Gauzak horrela, guztiz lekuz kanpo dago MTV erakunde pribatuak antolatutako kontzertuarengatik udalak ordaindutakoa eta Ikastolaren jaialdiarengatik ordaindu beharrekoa konparatzea eta esaldi berean gastu biak sartzea. Ez dakit nondik dator kion gure alkate andereari Ikastolarekiko duen ezinikusi hori.

Tira, goazen garrantzitsuena azpimarratzera: Zorionak, Kurutzia-aga Ikastola, eta urte askotarako!

## Durungaldea asteen

### Espaziorako bidaien negozioan dabilzan guru bitxiak berbegai, Durangon

**Durango I** Izarra Astronomia Elkarteak hiru berbaldi antolatuko ditu. Pinondo etxean izango dira, 19:00etan. Lehenengoa azaroaren 15ean izango da, *Sobre cohetes y sus locos* izenburukoa. Bigarren hitzaldian, azaroaren 22an, unibertsoan aurkitu daitekeen fenomenorik misteriosuenetakoa izango dute berbegai: zulo beltza. Azkena ilargiaren eta espazioko beste satellite natural batzuen inguruan sakontzeko erabiliko dute, hilaren 29an.

### Durangoko Udalak 2.970 euro ipini zituen MTVren Durangoko jaialdirako

**Durango I** Aitziber Irigoras alkateak asteen jakitera eman duenez, Durangoko Udalak 2.969 euro ipini ditu MTVko kontzertuetarako; Landako Gunearen alokairua, elektrizitatea, plataformak... sartzen dira horren barruan. Bestalde, gastu hori ohikoa dela erakusteko, Irigorasek Kurutzia-aga ikastolaren 50. urtemugarako ere instituzioak 2.460 euro ipiniko dituela esan du.

### Garaiko Udalak dei egin die herritarrei Euskaraldian parte hartzeko

**Garai I** Herriko Taldeak eta Garaiko EAJk dei egin diete herritarrei Euskaraldian parte hartzeko. Ohar bidez jakitera eman dutenez, udalarentzat oso garrantzitsua da euskarari bultzada bat ematea Garain. Gainera, azaroaren 16an, 19:30ean, udaletxe aurrean egingo diren ekintzekin udalak bat egingo duela jakitera eman dute.



### Herritarren iritzia jasotzeko asmoz, Elorrion martxan da 'Zuk daukazu hitza' ekimena

**Elorrio I** 2019ko aurrekontuak lantzen hasi aurretik, Elorrioko Udala lanean dabil elorriarren iritzia eta lehenetsunak zeintzuk diren jakiteko asmoz. Hori horrela, *Zuk daukazu hitza* ekimena jarri dute martxan, eta herritarrei galdetegi bat bidaliko diete ahalik eta iritzirik gehien jasotzeko asmoz. "Udalak inbertsioetara bideratu ditzakeen baliabideak mugatuak dira eta horrek aurreikuspenekin aritzera behartzen gaitu", esan du Idoia Buruaga alkateak.

Bestalde, ekarpenak azaroaren 14ra arte egin ahaliko direla jakitera eman dute.

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

CERAMICAS  
**MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCION  
Chimeneas  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA  
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

ALDEKOA-OTALORA iturgintza  
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA  
info@aldekoaotalora.com - 692 859 779  
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791

Bulegorako  
zigiluak  
Fotolitoak  
**Betikoak**  
flexografia  
946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA






# AMaiUR, 1512

Oso aspaldi iragandako gertaera dela gogoan hartuta, badira gutxienez sei elementu irudi honetan aurkitu beharko ez genituzkeenak, gehienak artean asmatu gabeak zirelako. Zeintzuk dira?

## DOMINO ZATIA





Erretratu hauetan ikusten dituzun lagun hauek denak ikaskideak izan ziren txikitan. Begira iezajozu orain dela 25 urte egindako argazkiari. Ba al dakizu zein den zein?







**A**  
zazu fitxetako espazio zuriak,  
zati hau zuzena izan dadin.



## SUDOKU KOLORETSUA

Sudoku hau ongi osatzeko, kolore egokiaz margotu beharko dituzu biribil zuriak. Gogoratu kolore bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe bakoitzeko, lerro bakoitzeko eta sei laukik osatzen duten area bakoitzeko.

Hauk dira aukerak:




[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)

## asmatu

Ba al dakizu zer dioen esaerak?

- Inor ez da ...

- 1 ... bat-batean tximino bihurtzen.
- 2 ... norberaren haurra bezain eder.
- 3 ... amaren bularrean aspertzen.
- 4 ... ikasia jaiotzen.
- 5 ... amarekin harrotzen.
- 6 ... sehaskatik matematika zale.
- 7 ... ondo jan gabe inora heltzen.
- 8 ... ametsik egin gabe bizi.



Sartu  
[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
web atarian eta  
denbora-pasa hauen erantzunekin  
batara beste hainbat jolas aurkituko  
dituzu.



# EUSKARALDIA DURANGON

11 EGUN EUSKARAZ

## ANIMATU ETA ZABALDU ZURE INGURUAN!

Eman izena Euskaraldian

- euskaraldia.eus webgunean
- Artekaleko lokalean



Azaroaren 23tik  
abenduaren 3ra







## Jazz Blues jaialdia

### KONTZERTUAK

ELORRIO :: Azaroak 9, 10 eta 11

## Dani Pozo 4tet, Lonj eta Broken Brothers Brass Band

Arriolako XXIX. Jazz Blues jaialdia martxan dago. Barikuan Dani Pozo 4tet izango da protagonista. Zapatuan, hilak 10, Lonj frantziarrak eskainiko du kontzertua. Besteak beste, Burdeoseko musikariak BB King, T-Model Ford eta Sam Carr blues izarrekin jo izan du oholtza gainean. Domekan Broken Brothers Brass Bandek joko du, gaztetxean.

### Azaroaren 9an

#### IURRETA musika

'Mousy and the big red ball' haurrentzako ipuin kontalaria, 17:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

#### DURANGO jardunaldiak

'Norma, disidencia y desviación. Los excluidos y el control social a través de la historia' jardunaldiak 10:00etan, Arte eta Historia museoa.

#### BERRIZ antzerkia

'Kanpoaldea toki bat da' antzezlan, 17:00etan eta 18:15ean, Kultur Etxean.

#### IURRETA musika

'Musikaldia 2018'-ren baitan, Paddam bikotearen kontzertua, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

#### ZORNOTZA antzerkia

'Luis Urrengoetxea kaleko jaiak 2018'. Txistulariak, 19:00etan; igel txapelketa, 19:00etan, far-farreko arkupean; Blanco y en Botella taldearen kontzertua, 22:00etan.

#### ZORNOTZA antzerkia

'Artha' ikuskizuna Elirale dantza taldearen eskutik, 20:15ean, Zornotza Aretoa.

#### ELORRIO musika

'Dani Pozo 4tet', 22:30ean, Ateneon.

### Azaroaren 10ean

DURANGO bisita gidatua 'Durango dorre puntatik' bisita gidatua, 12:00ean, (aurretik izena eman behar da 946818066 telefonoan edo gerediaga@gerediaga.eus helbidean).

#### ELORRIO musika

'Lonj Blues trio', 22:30ean, Ateneon.

#### ABADIÑO antzerkia

'Hozkailua', 19:00etan, Errotan.

#### DURANGO musika

Elena Arbonies eta Amaia Zipitriaren kontzertua, 20:00etan, San Frantziskon.

#### ZORNOTZA antzerkia

'Luis Urrengoetxea kaleko jaiak 2018'. Zumba saioa, 12:00etan, Euskal Herria enparantzan; trikitilariak, 13:00etan; sukalki txapelketa, 14:00etan; Elektrobiuika elektrotzaranga, 18:00etan; Parabellum eta Gatillazo taldeen kontzertuak, 21:30ean, Zelaieta parkean.

#### DURANGO ospakizuna

Kurutziaga Ikastolaren 50. urteurren ospakizuna. Puzgarriak, 10:30ean, Landako Gunean.

#### Ane eta Piratekin

parrandan, 12:00etan, Plateruenean.

#### Musika, 12:30ean,

Durango kaleetatik, bazkaria eta urteurreneko ekitaldia, 14:30ean, Landako Gunean.

#### Erromeria Luhartzegaz,

17:00etan, Landako Gunean.

#### BERRIZ antzerkia

'Node Akziona' antzezlan, 20:00etan, Kultur Etxean.

#### BERRIZ deialdia

Durungaldeko gaztetxe eta gazte asanbladen eguna, 14:30ean, gaztetxean.

### Azaroaren 11n

#### ELORRIO musika

'Broken Brothers Brass Band', 20:00etan, gaztetxean.

#### ZORNOTZA antzerkia

'Luis Urrengoetxea kaleko jaiak 2018'. 'Ba zen behin...' kontu kontalaria Xanti Ledesmagaz, 12:00etan, Lutaber errifan zoketa, 15:00etan.

#### DURANGO antzerkia

'Linbo Planeta' Dejabu Panpin Laborategiaren obra, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

#### DURANGO ekitaldia

'Agurrik Gabeak' omenaldi ekitaldia, 18:00etan, Plateruenean.

### Azaroaren 15ean

#### IURRETA musika

'Musikaldia 2018'-ren baitan, Paddam bikotearen kontzertua, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

## Azaroko agenda



12

### "IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"

15:45 Paperezko hegoak (DBH 1-2)

13

### "IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"

17:00 Irakurketa kluba "Quiereme bien-Rosalind B.Penfold"  
18:30 Irakurketa Kluba "Ondo maite nazazu-Rosalind B.Penfold"  
Iurretako emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa eta I.Plana  
18:30 Herritarrei zuzendutako saioa: "Erronka nagusiak"

14

### "IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"

10:00-11:00 XL irakurketa kluba  
17:00-19:00 Paperezko hegoak (LH 3-4 mailak)  
19:00-20:00 Paperezko hegoak (LH 5-6 mailak)

15-19

### "Gizarte Ongizate Saila Ibarretxe Kultur Etxea"

Marrakziak, esaldiak, bertsoak, esloganak, binetak jasoko dira.  
Gaia: BERDINTASUNA, INDARKETIA ETA SEXISMOA

15

### "Iurretako Pertona Nagusien etxean"

17:30 Hitzaldia  
Iurretako HAPOaren parte-hartze plana  
18:30 Herriko emakumeen parte-hartze tailerra

#### ELORRIO emanaldia

'Kabi Biluziak' dokumentala eta mahai-ingurua, 18:30ean, Iturri kultur etxean.

### Azaroaren 16an

#### ABADIÑO emanaldia

'Ttipia Ganbaran' ikuskizuna, 18:30ean, Errotan.

#### ZORNOTZA antzerkia

'Lorca, la correspondencia personal' antzezlan, 20:15ean, Zornotza Aretoa.

### Azaroaren 17an

#### ZALDIBAR ikastaroa

Edertasun kanonei buruzko tailerra, 10:00etan, liburutegi zaharrean.

### Azaroaren 24an

#### DURANGO musika

Juan Carlos Irizarren piano kontzertua, Arrupe aretoa, Jesuitak ikastetxean.

### Azaroaren 30 arte

#### DURANGO erakusketa

'Haritik Tiraka' arropa garbia kanpaina, Bizenta Mogel bibliotekan.

# Zine- ma

## :: Berriz KULTUR ETXEA

• **Girl**  
barikua 9: 22:00  
domeka 11: 19:00

## :: Durango ZUGAZA

• **Millenium:**  
*Lo que no te mata, te hace más fuerte*  
barikua 9: 19:30/22:00  
zapatua 10: 17:00/19:30/22:30  
domeka 11: 16:30/19:00/21:30  
astelehena 12: 18:30/21:00  
martitzena 13: 20:00  
eguztena 14: 20:00

• **Overlord**  
barikua 9: 19:30/22:00  
zapatua 10: 19:30/22:30  
domeka 11: 19:00/21:30  
astelehena 12: 18:30/21:00  
martitzena 13: 20:00  
eguztena 14: 20:00

• **La sociedad literaria y el pastel de piel de patata**  
barikua 9: 19:30  
zapatua 10: 18:30  
domeka 11: 18:00  
astelehena 12: 18:30  
• **Bohemian Rhapsody**  
barikua 9: 22:00  
zapatua 10: 21:00  
domeka 11: 20:30  
astelehena 12: 21:00

## :: Elorrio ARRIOLA

• **Todos lo saben**  
domeka 11: 20:00  
astelehena 12: 20:00

## :: Zornotza ARETOA

• **Bohemian Rhapsody**  
zapatua 10: 22:00  
domeka 11: 20:00  
astelehena 12: 20:15

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [kultura@anboto.org](mailto:kultura@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



# "Musika klasikoarekiko dauden aurreiritziak apurtu gura ditugu, jendea hurbildu dadin"

Azaroaren 17an, lurretako Musikaldia itxiko du Durangaldeko 4kote taldeak; 18:30ean izango da emanaldia



4kote entseguan.

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Etxeko talde bat arduratuko da lurretako Musikaldia borobiltzeaz. Azaroaren 17an, 18:30ean, kontzertua eskainiko du Durangaldeko 4kote taldeak, Ibarretxe kultur Etxean. "Errepertorio orekatua eramaten saiatuko gara eta sorpresaren bat ere egongo da", azaldu du taldeak, ikuskizunerako bereziki prestatu duten piezari misterio kutsua emanda.

2011. urtearen bueltan laukote moduan jaio arren, boskotea da egun 4kote. Edurne Eguiak, Bidane Txopiteak, Jasone Turumbayk, Iraixe Uribelarreak eta Igone Amestik

osutzen dute taldea. Azaroaren 17koa boskote formatuan emango duten lehenbiziko kontzertua izango da. "Egunen batean aldatu behar ko dugu izena, baina oraingoz ez", diote barre artean. Iker Ruiz de Alegria pianistaren laguntza ere badute. Irakasle eta zuzendari legez, Agurtzane Mentxaka dute.

Abesbatzako kide zirela, Mentxakak berak animatu zituen Eguia, Txopitea, Turumbay eta Uribelarre laukotea osatzera. "Tal-de txiki batera hobeto moldatuko ginelakoan proposatu zigun Agurtzane". Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasleak dira guztiak, eta

Mentxakaren klaseak hartzen dituzte. "Agurtzane zuzendu egiten gaitu entseguetan, proposamenak egiten dizkigu, erronkak bilatzen

### ***lurretakoa boskote moduan emango duten lehenbiziko kontzertua izango da***

dizkigu, eta egin ditugun estilo aldaketetako asko ere berari zor dizkiogu. Ikusten ez den lan asko berak egiten du", azaldu dute esker onez 4koteko kideek. Eurek ere

gogotik lan egiten dutela gogoratu dute gero. "Astean behin guztiok batera entseatzen dugu, ordu eta erdiz. Horri gehitu bakoitzaren klaseak eta etxean norberak egin dezakeena". Entseguetan, abesteaz gainera, bestelako gaitasunak ere trebatu ditu boskoteak. "Gorputz hizkuntza, abesti hasieren sinkronizazioa, arnasa hartzea... urteekin gehiago ezagutu dugu elkar, eta horrek konplizitatea sortzen du".

### **"Bésame mucho"**

"Entzutekoak bakarrik ez, ikusteko emanaldiak ere badira gureak", diote protagonistek zuzenekoei buruz

galdetuta. Behin Durangoko San Frantzisko elizan emandako bolero kontzertu bat gogoratzen dute bes-teen artean: "Emakume asko egon ziren gugaz batera *Bésame Mucho* abesten, eta mojak ere kontzertua ikusten egon ziren. Oso oroitzapen polita dugu".

Kontzertuetan publikoagaz duten feelinga ere nabarmentzen dute abeslariak, eta musika klasikoarekiko aurreiritziak albo batera uzteko eskatzen dute. "Askotan harritu egiten da jendea, ez baitu espero egiten duguna ikustea; ez gara ohiko formatu bat. Beharbada, Golden Apple Quartetegaz konpara-

***"Hain zuzen ere, taldearen indarra gure arteko konpromisoan eta konplizitatean dago"***

***Entseguetako beharrari esker, gorputz hizkuntza eta sinkronizazioa landu dituzte, besteak beste***

tu gaitetzke, baina haien ukitu umoristikoa dute". Haien kasuan bezala, 4koteren emanaldiak ez dira musika bakarrik. "Jantziak ere zaintzen ditugu, eta, abesterakoan, paperean sartzen gara. Horrek ikuskizuna borobiltzen laguntzen du".

### **Elkarren arteko babesa**

Taula gainean euren ahotsen laguntza baino ez dute laurak (bostek), baina horrek ez ditu kokiltzen. "Ez da berdina lau ahotseko abestiak kantatzea edo hogeitahotsekoak, noski". Erronka moduan hartzen dituzte zuzenekoak, beraz. "Urduri egon arren, itzelean pasatzen dugu, eta uste dugu urduritasun hori ere eduki behar dela. Bestela ezinezkoa dela ongi egitea", adierazi dute.

Aldi berean, erronka pertsonal horiek taldea hazten lagundu dutela uste dute. "Zuzenekoan arduraguztia gure gain egoteak indartu egin du taldearekiko eta taldeki-deekiko konpromisoa. Eta, hain zuzen ere, taldearen indarra gure arteko konpromiso horretan dago".



**bbt18**  
Bizkaiko Bertsozari Txapelketa 2018

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa  
www.bertsosarrerak.eus

**FINALAURREKOA**

**BERRIZ**  
Azaroaren 18an, domeka, 17:00etan, herriko pilotalekuan.  
Aitor Bizkarra Ruiz, Imanol Uria Albizuri, Julen Erezuma Arzanegi,  
Miren Amuriza Plaza, Unai Mendiburu Valor eta Xabat Gallettebeitia Abaroa.










# Urtea argazkitan harrapatzeko asmoz, 'Argazki Matadoia' ekimena sortu dute

365 egunek edo 52 astek (aurrez gaia proposatuta) eman dezaketena argazkien bidez islatzeko gogoz, eskualdeko gazte batzuek 'Argazki Matadoia' ekimena sortu dute Facebook sare sozialean; argazkizaleen sarea osatzeko helburua ere badute



Ainara Petite, Maitane Totorika eta Antton Izagirre.

## ARGAZKILARITZA • A.M.

**Azken garaian kateak ohiko bilakatu dira sare sozialetan. Gurean, Durangaldeko argazkizale talde batek 'Argazki Matadoia' jarri du martxan. Nondik dator 'Argazki Matadoia'?**

**Antton Izagirre:** Iaz, antzerako garaian, argazkiak ateratzeko aitzakiaren baten bila ibili ginen. Ekimen hau bururatu zitzaigun, baina ez dugu aurten arte martxan jarri.

**Ainara Petite:** Badira garai batzuk kamera albo batera uzten duzuna. Aitzakia hau egokia da argazkilaritzari urte osoan eusteko. **Zenbat lagunek parte hartzen duzue ekimenean?**

**Maitane Totorika:** Jende ezaguna batzen hasi ginen, baina zabaldu egin da, eta une honetan 25 bat lagun gaude. Ondo dator hau, besteengandik ikasten duzulako, eta horrek ere motibatzen zaitu.

**Batzea gura duenak, zer egin behar-ko luke?**

**A.I.:** Talde irekia da eta edonor dago gonbidatuta. 365 Argazki proiektuan edo 52 Argazki proiektuan eman daiteke izena. Astero gai bat proposatzea izango da gure konpromisoa. Norberak ezartzen du bere konpromiso maila. Ez da sekulako argazki-kamera bat eduki behar. Mugikorrak ere atera daitezke argazkiak.

**A.P.:** Egunean bertan ateratakoa izan behar du argazkiak. Hori litzateke betebeharrak, baina, esan bezala, zure buruagaz duzu konpromisoa. Ez zaio inori ezer demostratu behar.

**Aurrera begira, baduzue argazki pila horregaz zerbaiteko asmorik?**

**M.T.:** Ez dugu erabaki, baina ondo egongo litzateke zerbaitegitea.

## Gai librea

Jon Irazabal Agirre  
Gerediagako  
Kidea



## Liburu artean (1)

Gezurra dirudi liburuak etsai izatera heldu ahal direla, baina horrela da. Garai batean, liburu bat eskuratzea pozgarria zen. Gaur egun, aldiz, liburu bat oparitzean laguna "izorratzen" ari zarela dirudi. Soberran daude liburuak gizartean. "Dena dago interneten". Asko dago, baina "Murphyren legea medio", zuk behar duzuna, ez.

Kristolango erromeria izaten da liburuzale bat hiltzen denean. Senidea hurbildu, eta borondate onenagaz: "Aitaren etxea garbitzen ari gara eta liburu batzuk kendu gura ditugu. Eramango dituzu?"

Normalean, baiezkoa da erantzuna. Hara joan, liburutegiari begiratu, eta zer egin pentsatzen duzu. Baliotsuak saltzea gomendatzen diezu, familiak eginiko inbertsioa berreskuratu ahal izateko; eta besteekin zer egin pentsatzen duzu. Gehienak liburu arruntak izan ohi dira eta hor hasten da kalbarioa: "Eraman, eta zuk jakingo duzu zer egin. Hori izango zen bere nahia".

Liburu horietako asko aurretik ere liburutegian dituzu. Beraz, lehen pausoa herriko udal liburutegira joatea izaten da. Han lehen zaplaztekoa. "Ez ditugu jasotzen" entzun, eta etxera berriro. Gaur egun, gure arkitekto jaun txit argiek eginiko liburutegiak hain dira modernoak, liburuak gordetzeko biltegiak ez dutela. Ezetz honen ondoren, ibilbide luze bat hasten da, eta, normalean, norberaren etxean amaitzen dute liburuok. Eta familia haserre, jakina.

Irakasleek eta ikasleek behar dituzten liburutegietan. Ez da posible liburu biltegi bat sortzea merinaldean horiek gorde eta interesa duenari eskaintzeko?

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Durangoko XXIX. Musika Hamabostaldia Elena Arbonies musikari durangarraren klarinete kontzertuagaz hasiko da, zapatuan. Arbonies kontserbatorioko ikasle ohia da eta Donostiako Musikenen goi mailako klarinete ikasketak egin ostean, egun Rotterdameko (Herbehereak) kontserbatorioan graduondoko bat ikasten ari da. Arboniesegaz batera, Amaia Zipitriak pianoa joko du.

San Frantzisko elizan izango da kontzertua, 20:00etan.

## Bartolome Ertzilla, ardatz

Aurtengo edizioa lau kontzertu osatzen dute. Iaz baino bat gehiago egongo da. Bartolome Ertzilla konpositore durangarra omendu gura

# XXIX. Musika Hamabostaldia Elena Arboniesen kontzertuagaz hasiko da

Abendu amaiera arte iraungo du lau musika kontzertuz osatutako egitarauak

dute antolatzaileek, eta kontzertuetako bi monografikoak izango dira, bere obrari eskainitakoak. Abenduaren 16an, Ertzillak bandarako sorturiko musika ardatz hartuta, Durangoko Bandak kontzertua eskainiko du, Vanessa Goikoetxea eta Andeka Gorrotxategi abeslari famatuekin. Abenduaren 22ko kontzertuak itxiko du zikloa. Elena Orobiogoikoetxeak Ertzillak pianorako egindako obra erreparatu du.



Alfredo Sanz, Aitziber Irigoras eta Luis Orduña.

**Linbo Planeta**  
Dejabu Panpin Laborategia

Azaroak 11, martitza  
18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

**PLATERUENA**

**PLATERUENA Kafe Antzokia**  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jateixea@plateruena.net

**Azaroak 23 · 21:30ean**  
**PUB QUIZ**  
Lehiaketa

**Azaroak 24 · 22:00etan**  
**SU TA GAR**  
Kontzertua

**Azaroak 30 · 21:30ean**  
**JAM SESSION**  
Jam Session



KORRIKA • JOSEBA DERTEANO

Sekula ez da berandu gustukoa den hori egiteko. Arkaitz Iturriagaetxebarria orain lau urte hasi zen korrika serio. Eneko Zarrabeitia afizioa berreskuratu zuenetik, ostera, urte bi joan dira. Gaur egun, jo eta su dabilta bata zein bestea mendiko probetako giroak harrapatuta.

**Urte gutxi daramatzazue mendiko lasterketen munduan murgilduta. Noiz eta zergatik hasi zineten?**

**Arkaitz Iturriagaetxebarria:** Orain dela lau urte hasi nintzen. Lasterketa labur batzuen ostean, Goierriko Bi Haundietan parte hartu nuen, 88 kilometroko proban. Hurrengo urtean Ehun Millak egin nituen eta harrezkero luzeetan nabil. Zergatik hasi nintzen? Aurretik oso gutxitan ibiltzen nintzen korrika. Tabakoa utzi nuenean hasi, eta egunetik egunera gero eta hobeto ikusten nuen neure burua, batez ere aldapan gorra. Horrek animatu egin ninduen.

**Eneko Zarrabeitia:** 2014an etorri nintzenetik, Arkaitz eta beste lagun batzuk probatu behar nuela esan eta esan aritu zitzaizkidan. Orain urte bi probatzea erabaki nuen eta gustatu egin zitzaidan. Oso kirol aberasgarria da, mendian zaude, kaletik urrun... Horrek engantxatu egiten duela uste dut. Mendiko probetan asfaltokoetan baino errazagoa da lagunak egitea, eta hori asko eskertzen dut.

**A.I.:** Mendiko probei esker jende asko ezagutu dut. Oso jende jatorra.

**E.Z.:** Mendiko probetan oso giro euskalduna, gertukoa eta jatorra egoten da. Hori garrantzitsua da jendea erakartzeko. Badago lehia, jakina, baina lehia baino gehiago da. Zerbait gertatzen bazaizu, jendea laguntzen geratzen da normalean. Elkartasuna dago.

**A.I.:** Enekok dioen guztia da ni mendira engantxatu nauena. Distantzia luzeko lasterketa batean beste norbaitekin bazoaz, ordu asko ematen dituzu beragaz, eta ahulda-de uneetan bata besteari laguntzen eta animatzen aritzen gara. Esperientzia hori guztia partekatzea berezia da, estimua hartzen diozu pertsona horri. Barruraino heltzen zaidan zerbait da; niri eta denoi, esango neuke. Lotura moduko bat sortzen da.

**Eta zuk, Eneko, Ultra Trailak eta antzerakoak buruan dituzu?**

**E.Z.:** Momentuz, ez naute erakarzen. Uste dut oraindik ez nagoela psikologikoki prest horrelakoei aurre egiteko. Gainera, ez dut gura adina denbora antzerako

**“Aste bitartean ez dut ordu askorik egiten korrika, bi-hiru ordu asko jota”**

ARKAITZ ITURRIAGAETXEBARRIA

## “Mendiko probetan oso giro euskalduna, gertukoa eta jatorra egoten da”

Mendiko lasterketen egutegia aukera bikaina da eurentzat lagun berriak egiteko eta toki berriak ezagutzeko



**Arkaitz Iturriagaetxebarria**  
Altuna  
Abadiño | 1979

**Eneko Zarrabeitia**  
Salterain  
Abadiño | 1981  
Korrikalariak

Arkaitz Iturriagaetxebarria —ezkerrean—, Eneko Zarrabeitia —eskuman— eta Enekoren seme Oihan, erdian.

erronkei begira entrenatzeko. Horrelako batera joatekotan, ondo prestatuta eta konbentziturta joan behar dut. Bestela, ez noa.

**Baina buruan darabilzun zerbait da?**

**E.Z.:** Bai, bai, buruan daukadan zerbait da. Arkaitzi irabazi behar diot! Ez dago besterik. Motibazio hori daukat.

**A.I.:** (Barreak) Neuk ere gogorrigo entrenatzeko motibazio moduan hartu beharko dut, orduan.

**E.Z.:** Eguna heltzen denean, beharko du motibazioa niri jarraitzeko!

**Zelakoak dira aste normal bateko entrenamenduak?**

**A.I.:** Aste bitartean ez dut ordu askorik egiten korrika, bi-hiru ordu asko jota. Inguruko korrikalari batzuen artean talde bat eginga dugu eta domeketan eurekin ibiltzen naiz. Ultretan gabiltzanok bost-sei ordu egiten ditugu domekero.

**E.Z.:** Ni ere ibiltzen naiz eurekin asteburuan, baina lantzean behin bakarrik. Izan ere, entrenamenduak oso desberdinak dira lasterketa luzeetara edo laburretara begira. Ordu bi egin ostean etxera joaten naiz. Entrenamendu laburrak intentsagoak dira.

**A.I.:** Gugaz datorrenean, erritmo bizia jarri eta nekatu egiten gaitu. Eta gero alde egiten du etxera!

**E.Z.:** Entrenamenduek ez dute zeri-

kusirik. Kirol desberdinak dira alde horretatik.

**Eneko, Oihana Azkorbebeitiagaz ere ibiltzen zara. Horiek entrenamendu konpletoak izango dira, ezta?**

**E.Z.:** Ez pentsa, Oihana ez da hain gogor entrenatzen. Lasterketetan entrenatzen dela esango nuke. Hori bai, probarik ez duen asteburuan arinago dabil eta asko sufritzen dut. Batzuetan ezin diot jarraitu.

**Iaz kros mistoen liga irabazi zenuen Azkorbebeitiagaz. Zelan gogoratzen duzu abentura hura?**

**E.Z.:** Azpeitiko lehenengora joan eta irabazi egin genuen. Beraz, jarraitzea erabaki genuen. Lau proba ziren guztira. Hirutan parte hartu eta hirurak irabazi genituen. Aurten ez gara lehiatu, denboraldia luze doalako. Dena dela, Zarauzkoa falta da. Abenduko lehenengo asteburuan da eta ikusiko dugu joango garen ala ez. Kros mistoetan osperik handiena duen proba da eta abadiñarrek sarritan irabazi dute han. Cristina Petitek eta Paulo Sagarnak, hain zuzen. Euren da gaur egungo errekorra.

**Triatloiak egin izan dituzu. Baztertuta duzun zerbait da?**

**E.Z.:** 2015ean erdi distantziako Iron Man proba bi eta distantzia olinpikoko beste bat egin nituen Mugarra Triatloi Taldeagaz. Baina gehiagorik

ez. Denbora eskatzen du. Korrika, bizikletan zein igeri, hiru modalitateak nahiko ondo menderatu behar dira eta horrek estresatu egiten ninduen. Ez nuen ondo asimilatu. Baina Iron Man bat egitea umetatik dudak ilusioa da. Egingo dut. Lehenago edo geroago, Iron Man bat egingo dut.

**Arkaitz, zure esperientziarik onenen artean toki berezia du Basque Ultra Trailen Erlantz Zaldunbide iurretarragaz batera helmugaratu zinen lasterketa hark?**

**“Iron Man bat egitea umetatik daukadan ilusioa da eta, lehenago edo geroago, egingo dut”**

ENEKO ZARRABEITIA

**A.I.:** Bai. Donostiatik Billbora, 140 kilometro ziren. Nahiko goiz elkartu nintzen Erlantzegaz. Lasterketa osoa elkarregaz eta indarrak neurtzen joan ginen. Helmugara elkarren ondoan sartu ginen, Kataluniako estelada bat eskuetan. Nire lasterketarik onetetakoa eta politenetakoa izan da, oraintsu jokatu den Bocineros-Deiadar Xtreme-egaz batera.

**Iraileko proba horretan laugarren tokiari amaitu zenuen. Gustura?**

**A.I.:** Ez nuen uste hain ondo ibiliko nintzenik. Hasieran, kostatu zitzaidan lasterketan sartzea, baina gero Arkaitz Galindez korrikalariagaz batu nintzen eta elkarregaz joan ginen.

**Bidean zehar animatzaile bat izan zenuela esan didate.**

**A.I.:** Bai, beste batzuen artean, Eneko. Gorbeian, Pagomakurretik Abadiñoraino gugaz etorri zen.

**E.Z.:** Ni dudekin joan nintzen: "Jarraitu ahalko ote diot?". Lasterketan dabilena sufritzeko mentalizatuta dago, baina kanpotik sartzea desberdina da. Beldur hori neukan. Baina zelan aurkitu nituen! Ordu askotako ahaleginaren ostean, psikologikoki baxu zeuden. Oso gogorra egin zitzaidan eurak biak horrela ikustea.

**A.I.:** Neurritik kanpo geunden ordu-rako. Jakina, gu ez ginen horretaz konturatzen, baina kanpotik datorren batek garbi ikusten du.

**E.Z.:** Hori ikusteak argi utzi zidan gaur egun ezin dudala horrelako probarik egin.

**A.I.:** Nekea desgaste psikologikoagaz batzen denean... Hala ere, gurago dut hori lasterketa laburretan parte hartu baino. Laburrak lar esplosiboak dira niretzat.



# BLACK WEEK

ZATOZ LEHENBAILEHEN  
ETA ERRESERBATU  
ZURE BLACK PREZIOA!

Azaroaren **19**tik **24**ra

**SCHMIDT**  
Etxeko Sukalde eta Altzariak



## Zaldua Mendi Taldeak erreleboa behar du aurrera jarraitzeko

**MENDIA • J.D.**

Zaldibarko mendi taldeak ezohiko batzarrera deitu du zapatu goizerako, liburutegi zaharrean. Gaur egun zuzendaritza osatzen dutenek uzteko asmoa dute eta erreleboa hartzeko prest daudenei bertaratzeko deia egin diete, bestela taldea desagertu egingo delako.

## Olazar txapelketan final-laurdenak hasiko dituzte

**PILOTA • J.D.**

Azaroaren 15ean Olazar pilota txapelketako final-laurdenak hasiko dituzte Zaldibarren. Lau t'erdian, Ruiz de Larramendik Alberdi izango du aurkari. Binaka, Zubizarretak eta Garmendiak Salaberriaren eta Marizkurrenaren aurka jokatu dute.

# Ibaizabal eta Sapubike, Movember kanpainara batu diren beste talde bi

DRTk urteak daramatza prostata eta barrabiletako minbiziaren sentsibilizazioan eragiten

**KANPAINA • JOSEBA DERTEANO**

Munduko Movember ekimenaren helburua prostata eta barrabiletako minbiziaren inguruko kontzientziazioan eragitea da. Gizonak azaroan zehar bibotea utziz gizarteratzen dute gaia. Durango Rugby Taldeak urteak daramatza ekimena sustatzen eta ingurukoak inplikatzeko. Iaz bederatzik kirol taldeak babestu zuten kanpaina eta aurten beste bi batu zaizkie: Durango MTB Sapubike eta Ibaizabal eskubaloia taldea.

Ibaizabal emakumezkoen taldea da. Kanpaina zabaltzeko, denon laguntza dela beharrezko uste dute DRTkoek, gizon zein emakume izan. "Eskubaloia taldeari kanpaina babesteko eskatu genionean, gustura onartu zuten", azaldu du Iker Mendietak. Sapubike taldekoen kasuan, eurak izan ziren DRTgaz hartu-emanetan ja-



DRTko Kepa Goienetxea, Iker Mendietak eta Antxon Iriondo, ekimenaren aurkezpenan.

rri zirenak eta kanpaina batzeko interesa agertu zutenak.

### Diru bilketa eta jai

Movember-en alde diru donazioak egin daitezke. Mugimenduaren webgunera sartu, izena eman eta

DRTk sortuta duen taldera sartu daiteke donazioa egitera.

Kanpaina jai batez agurtuko dute, azaroaren 29an. Pintxopote berezia eta oparien zozketa izango dira. Bibote originalenaren txapelketa ere egingo dute.

## Asteko kirolaria

# "Taldekako sailkapenak denon motibazioa pizten du eta polita litzateke irabaztea"

Lasterketa baten faltan, Bizkaia Kopa Traileko txapelketa da Ekaitz Kortazar durangarra

**Azken lasterketaren faltan, Ekaitz Kortazar durangarra Bizkaia Kopa Traileko txapelketa da matematikoki. Parte hartu duen zazpi lasterketarik bost garaipen eskuratu ditu.**

**Asteburuan Lekeition bigarren postua lortuta, matematikoki Bizkaia Kopa Traileko irabazlea zara.**

Hala da, bai. Martxoan hasi zen txapelketa eta abenduan Dimako lasterketaz emango diogu amaiera kopari.

**Txapelketa hasi zenean, espero zenuen horrela ibiltzea?**

Otsailean lesio bat izan nuen eta ez nuen txapelketa honetan parte hartzeko asmorik. Anaiak eta Sorginen Lagunak taldeko kideek animatzeko esan zidaten, taldeko sailkapenerako ona izan nitekeeneko. Beraz, eurek animatuta, martxoan lehenengo proba joan nintzen eta bigarren egin nuen.

**Zazpi lasterketatan bost garaipen eta bigarren postu bi lortu dituzu. Sasoi onean zauden seinale.**

Bizkaiko lasterketa hauetan maila oso altua ez dagoen arren, aurrean maila oneko korrikalariak ibili gara eta lasterketa guztietan

borroka polita izan dugu. Gainera, zortzi hilabete irauten duen kopa batean sailkapen nagusian ondo aritzeko, urte osoan maila ona izan behar duzu, eta nik hori eginge lortu dut.

**Kopa irabazita duzun arren, Dimako garaipena lortzeko borroka egin gurako duzula imajinatzen dut.**

Beste helburu batzuk ditut eta oraindik ez dakit joango naizen. Dimara banoa, taldeko sailkapenarengatik borrokatzeko izango da, zaila den arren badaukagu eta aukera txikiren bat irabazteko. Taldeko sailkapenak denon moti-



**EKAITZ KORTAZAR ZENIKAONANDIA**  
Durango, korrikalaria

bazioa pizten du eta polita litzateke irabaztea.

**Kopa amaitutakoan, zeintzuk dira zure hurrengo helburuak?**

Azaroan eta abenduan entrenamendu gogorak egin eta urte hasieran Durango Kirol Klubagaz jokatu ditudan Bizkaiko eta Euskadiko Txapelketetara sasoi batean heltzea da nire asmoa.

## Jokaldia

Unai Zamalloa Zubiaurre Saskibaloia



### Gaztetxoek ere hasi dira

Kirol talderik gehienak hasi dira beraien partiduekin, eta asteburu honetan umetxoek taldeak hasiko dira.

Orain dela lau urte idatzita-koari begiratu, ez dago aldaketa handirik. Saskibaloilariak asko dira, zenbaki hori diote, baina datu hauek aztertzen baditugu, mutilen taldeek zenbaki minimoetan jarraitzen dute gure eskualdean oraindik ere. Horren aurrean, talde mistoak eratu dira (mutiko eta neskatok osatutakoak, hain zuzen ere).

Aurreboraldia luzea egingen da, irailean hasita baitaude talderik gehientsuenak entrenatzen. Honek lagunarteko partidu ugari dakartza berarekin. Horrela, ikastetxeen arteko partidu asko jokatu dira.

Entrenatzaileak ere asko dira, eta beraie esker gure talde guztiak aurrera doaz. Gainera, harro egoteko moduan gaude, zeren eta gazteak dira eta beraien lana ezinbestekoa da etorkizunera begira gure saskibaloiak aurrera egin dezan. Horretarako, eskolek, ikastolek, kirol klubek... adostu eta landu egin behar dugu beraientzako formakuntza egokia eta erakargarria, zeren eta etorkizun labur batean beraiek izango dira talde nagusien entrenatzaileak. Hori da eskualdeko kirol klubek gaur egun duten erronka nagusietako bat. Horregatik, entrenatzaileei indarra eta eskerrak eman nahi dizkiet.

Ez dut amaitu nahi epaile lanetan arituko diren eskola laguntzaileei ere nire eskerrak beroenak eman gabe. Beraiek barik, boluntarioak denak, ez legoke ezer. Bakoitzari dago-kiona.

Aupa Saskibaloia! Gozatu Saskibaloia!

**hitz** liburutegia  
#nobedadeak

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburutegia.com

**HELDUENTZAT**  
MIGEL MARMOLEN  
HAMAKA ETA BAT JAOTZAK  
Dani Fano  
2018

**UME ETA GAZTEENTZAT**  
HAUR BESOETAKO 2  
Unai Iurriaga & Alex Sanvi  
2018

**MUSIKA**  
BEGIBAKAR  
Xabi Bandini  
2018

**5 URTE EUSKARARI PUZKARI**  
URR.25-AZA.14

**SUSTATU EUSKARA NAFARROA HEGOALDEAN**  
ESKATU SASKIA(K) 50€REN TRUKE ETA JASOTAKO DIRUAREN %25 BERTAKO EUSKALGINTZARA BIDERATUKO DA

egoaldeko uzta arari puzka

ERRIGORA aek



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**FU** AGENCIA INMOBILIARIA  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**//AUKERA**  
**ANTSO EZTEGIZ.** 90m2. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. **138.000€.**  
**SAN FAUSTO.** 2 logela (lehen 3), bainugela, sukalde-jangela eta egongela. Berriztatua. **90.000€**  
**AUKERA.** 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. **145.000 €** (negoziagarria).  
**IBAIZABAL.** Apartamentua. la berria, ganbara handia velux-arekin eta garajea. **199.000€**  
**IURRETA.** Dena berria, 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela-jangela. Terraza. **120.000€**

**//ETXEBIZITZAK SALGAI**  
**ZABALE (Ask. Etorbidea).** 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. **170.000 €**  
**ERROTARITXUENA.** Apartamentua. Dena kanpora begira, terraza, garaje itxia. **220.000€.**  
**ANBOTO.** Azken solairua. 3 logela, bainugela, egongela, balkoia, hegoaldera begira. **180.000€**  
